

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ezgaitasun- erakundeetako kudeatzaileen prestakuntza finantzatuko dio COCEMFERi

Torres kontseilaria COCEMFeko zuzendariarekin bildu da eta lankidetz hitzarmen bat sinatu du. Horren arabera, Gobernuak 34.000 euroko ekarpena egingo dio

Viernes, 22 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Erkidegoko Minusbaliatu Fisikoen eta Organikoen Elkarten Federazioari (COCEMFE) ikastaro bat ordainduko dio, prestakuntza-prozesu baten eta laguntza pertsonalizatuaren bitartez, ezgaitasun-erakundeetako arduradun diren profesional desberdinen kualifikazioa hobetzeko. Ikastaroaren kostua 34.000 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuak finantzatuko du erakunde horri emandako diru-laguntza moduan.



Elena Torres kontseilaria, Blanca Gómez COCEMFeko zuzendariarekin eta Javier Monzón zuzendari nagusiarekin, hitzarmena sinatzen.

Hala adierazi dute Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilari Elena Torres Mirandak, COCEMFeko zuzendari Begoña Blanca Gómez Bilbaok eta Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Javier Monzón Romék egindako bilera batean. Helburu horretarako, azken honek ere dagokion lankidetz hitzarmena sinatu du COCEMFeko ordezkariarekin.

Prestakuntza-ekintza hori 2008an abian jarritako "Nafarroako ezgaitasun-erakundeak modernizatzeko planean" (MEDIS) sartuta dago, eta 2008an, 2009an eta 2010ean plan horren 1. eta 2. faseak burutu zituzten eta Nafarroako Bikaintasunaren Fundazioaren sarietara aurkeztu diren edo aurkez daitezkeen erakundeentzat bakarrik da. Hala, soilik honako 14 elkarte hauek eska dezakete prestakuntza egitea: ADEMNA, ADISCO, AFINA, AMIFE, AMIMET, ANAPAR, ANASAPS, ANPHEB, ARN, COCEMFE, Atena Fundazioa, Tutelar Fundazioa, Ibili eta Javier Egoitza. Parte-hartzaileen kopurua erakunde hauek aurkezten dituzten eskaeren arabera izango da.

Prestakuntza-ekintza bost orduko presentiazko 10 saiotan garatuko da (irailatik azarora, ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara), eta gainera

parte hartzen duen erakunde bakoitzak "laguntza pertsonalizatua", parte-hartzaile bakoitzari egokitutako prestakuntza-prozesua, jasotzeko 17 orduko bono bat izango du. Sinatutako lankidetzahitzarmenean zehaztu den bezala, ikastaroa Sinergium aholkularitza-enpresak emango du Nafarroako Gobernuako departamentu horrena den San Jose ezgaitasun-zentroan.

COCEMFERentzako beste diru-laguntza batzuk

Dena den, prestakuntza-ekintzaren helburua, erakundeetako arduradunen kualifikazioa haien baliabideen eta zerbitzuen kudeaketa eta aurreikuspena optimizatzeko hobetzeaz gain, 2008an, 2009an eta 2010ean parte hartu zuten ezgaitasun-elkarte desberdinen artean sortutako lankidetzasareei eutsi eta bultzatzea da, baliabideak optimizatzeko eta dauden beharrak aztertzeko.

Onartu den diru-laguntza Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen zorroa onartu zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren aurreikuspenetan sartzen da. Izan ere, Dekretu horretan ezgaitasunak dituzten pertsonen arloko Gizarte Zerbitzuetako erakundeentzako era honetako diru-laguntzak aurreikusten ziren. Hain zuzen Nafarroako Gobernuak 2011n COCEMFERi jada emanak zizkion guztira 95.872,84 euroko hainbat diru-laguntza: 88.066 euroko diru-laguntza bat (langileak funtzionamendua eta alokairua kontzeptuetarako) eta 7.806 euroko beste bat Garraio Egokituaren programa burutzeko, ezgaitasunak dituzten pertsonen gizarte-ekimeneko erakundeentzako programaren barnean.